



B5



Izenaren jatorria

Mertzedekoa 1218an musulmanen lurraldeetan katigu egindako kristauen askatasuna erosteko sortu zan ordena erlijiosoa da. Gizonezkoen ordena Pedro Nolaskok sortu eban eta andrazkoena Sokorruko Andra Mariak. Mertzedeko Amaren eguna irailaren 24an ospatzen da.

Muga geografikoak

Ekialdetik Uharte kalea. Mendebaldetik San Bartolome kalea.

Ezaugarri historikoak

Kale honi Mertzedeko komentu eta eleizeak emoten deusie izena. Komentu horren jatorria Ibarrurin dago. 1595. urtean emakume talde batek Mertzedeko ordena hartu eta komunitate txiki bat sortu eban. Errenteriako Marina Saenz alargunak bere etxea eskeini eutsenean 1625an, Ibarruriko auzunetik urten eta herri handiago batera etorteko aukera izan eben.

Etxe barrian sartu ondoren, eleiza egoki bat eregiten hasi ziran. Berrogei urte iraun eban beharrak, baina azkenean, 1674an, eleiza barria amaitutzat emon zan. Mertzedeko ordenaren sortzailea zan Sokorruko Andra Mariaren zaindaritzapean jarri eben.

Hamaika larrialdi jasan behar izan ditu komentu eta eleiza horrek bere historian zehar. Frantsesen kontrako gudan eta, batez be, karlista eta liberalen arteko gudan, ondo ezagutu dau kainoien eta suaren eragina. Gernikako bonbardaketan be ondo-ondoan jausi jakozan bonbak.

Edifizio aitagarriak

Mertzedeko eleizearen ate nagusia Martin Ibañez de Zalbideak egin eban XVII. mendearen erdialdean, estilo barrokoan.

Eleiza barruan Santa Anaren imajina dago, flamenko estilokoa, orain bostehun bat urte egina. Santa Ana bere alaba Birjina Mariari irakurten irakasten agertzen da. Pertsonaia bien arpegiak baltzez dagoz.



A3



B2



Izenaren jatorria

Mestika toponimoaren deribazino bat da, beste garai baten toki honetan izandako landarediaren adierazgarri. Izan be, inguru hori guztiori, Gernika uriko atetaraino, Gernikak eta Lumok ustiatzen eben baso komunal "proindiviso" bat zan. Baso horrexetan gordeten ziran, hazten joan eitezana, Gernikako Arbolearen "semeak"; egunen baten arbola igartua ordezkaturiko ebenak. Eleizate eta uriaren arteko amaibako auzien ondoren, azkenik 1864an herri-lurrak saldu eta irabaziak banatzeko akordiora heldu ziran.

Ustez -ika atzikiak jatorri indoeuropearra adierazoten dau, eta inguru horretan historiaurrean egondako atzerriko eraginen adierazgarri da. Gainera, ez da atziki hori daukan toponimo bakarria inguruan: Baldatika, Gernika, Otxilika, Mestrika, Ordorika...

Mestika errekea, gaur lurperatua eta kanalizatua, auzo honen magaletik etorren: Agirre auzoa kurutzatu, Azkarretaren txaleta zanaren ondotik (gaur San Kristobal

plaza) Bilborako bidea zeharkatuTxikerranetik (zubi honen azpian bat baino gehiago ezkutau zan Gernikako bonbardaketa egunean), gero trenbidea eta azkenik Oka ibaira heltzen zan.

Muga geografikoak

Kale honek hego-iparralde orientazinoa dauka. Lurgorri kalea da hegoaldeko mugea eta Fray Martin de Murua iparraldekoa. Zati bitan bananduta dagoala esango geunke: Lurgorritik San Frantzisko eleizea aurreko errotondaraino eta hortik, aldats txiki bat, Fray Martin de Muruaraino.

Ezaugarri historikoak

Kalearen lehen zatian, mendebaldeko aldean, 60ko hamarkadan babes ofizialeko etxez osaturiko auzune bat dago, xake-taula baten antzeko antolaketagaz. Alde beretik jarraituz, oraintsu eregitako etxe moltso barri bat dago, urbanizazino edegia, jolasteko pistak eta guzti dituala. Aurreratxua, Asisko San Frantziskoren eleizea, aurrean plazatxu bat eta lorategi eder bat dituala.

Kalearen bigarren tarte eleiza parean jarritako errotondatik Fray Martin de Murua kaleraino igoten dauen aldats bat da. Lehenengo San Jose auzunea eta jarraian Mestika auzunea bera, biak be Gernikaren gorakada industrialaren ondoren eregitakoak eta garai haretako prisazko urbanismoaren ondorio.

Ekialdera Agirre plaza barria eta izen bera daroan inguruko auzunea. Apur bat gorago Agirregana auzunea, 1944-46 urteetan egindako "sindikaturiko etxeak", bizitza bakarrekoko batzuk, euren terrenotxu eta guzti, eta pisudun bloke luze bi. Bai batak eta bai besteak inguruotan egon zan Agirre baseritik hartu dabe izena.

Edifizio aitagarriak

Urremendi baserria, Santa Luzia auzoko baserrietako bat da. Kale honen hasieran dago, mendebaldera. Sasoi baten urira joian bidea kontrolatan eban torretxea izan bazan be, gaur egun XVIII. mendeko baserrien erara egindako etxe bat da, hau da, harrizko hormak eta etartea habe sendo baten gainean eutsita daukaz (arkudun etarteak beranduagokoak dira). Etarteko habe hori indartzeko zutabe bat jarri jakon, baina handigura eukielako edo, harri landuzko zutabea jarri eutsien, ez egurrezkoa.

Asisko San Frantziskoren eleiza barria, Gernikako hirugarren parrokia, 1997an edegi zan eta Foruko frantziskotarrek daroe. Nabe bakarrekoa da eta elizpea dauka inguruan, albo-herrietako eleizen antzera. Altarako horma, absidea, sabaitik sartzen dan argitasuna kontzentratzen dauen Aita Alvarezen (OFM) margolan bat da, ezelako figurazino bakoa. San Frantziskoren irudi tailatu bat, Ama Birjina umetxuagaz eta Santo Toribioko kurutze bat dira dagozan apaingarri bakarrak.



B3



Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

Miguel de Unamuno y Yugo Bilbon jaio zan 1864ko irailaren 24an, 1891n Grekerako Katedra lortu eban Salamancako Unibertsidadean eta urte berean Gernikako Andra Maria eleizan ezkondu zan Concepcion Lizarraga y Ecnarro gernikarragaz. 1900etik 1914ra unibertsidade horretako errektore izan zan. Alfonso XIII.a erregearen kontrako prentsa artikulua bat idaztearren Fuerteventurara erbesteratua izan ondoren,

Hendaiara atzerriratu eben eta gero Parisera. 1937ko urtarrilaren 1ean, atzerritik etorri barria, Salamancan hil zan.

Eleberri, tragedia, olerki, entsaio eta prentsa artikulua egile, bere idazlanetan sarritan euki eban gogoan Gernika-Lumo. Besteak beste: "Recuerdos de un viaje corto" (1884), "Paz en la guerra" (1897).

Muga geografikoak

Mendebalderantza Saraspe plaza. Ekialderantza Iparragirre kaleak mugatzen dau.